Galdakaoko Udala

# DEKRETUA / DECRETO

**Espediente zk./ Expediente nº:** 4089/2024
**Bazterrean ezarritako zenbakia eta data dituen ebazpena/ Resolución con número y fecha establecidos al margen**
**Prozedura/ Procedimiento:** Lehiaketa bidezko dirulaguntzak, abesbatzei zuzendutakoak/ Solicitud de subvención en concurrencia destinada a las agrupaciones corales

**Iñigo Hernando Arriandiaga (1, guztira 1)**
Alkatea / Alcalde-Presidente
Sinaduraren data: 18/07/2024
HASH: 8eb72295a31e93d88f985e7ff43096d51

## EGITATEAK ETA ZUZENBIDEKO OINARRIAK/ HECHOS Y FUNDAMENTOS DE DERECHO

**Galdakaoko abesbatza-taldeei laguntzeko deialdia (2024.urtea).**

**Convocatoria ayuda a grupos corales del municipio de Galdakao (año 2024).**

2023ko maiatzaren 4an, Udalbatzak udalerriko abesbatza taldeentzako dirulaguntzen deialdiaren oinarri arautzaile espezifikoak onartu zituen (BAO, 187 zk., 2023ko irailaren 28koa).

En fecha 4 de mayo de 2023 el Ayuntamiento Pleno aprobó las Bases Reguladoras específicas de la convocatoria de subvención dirigida a los grupos corales del municipio, (BOB núm 187 de 28 de septiembre de 2023).

Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 8.1 artikuluan xedatutakoari jarraiki, Alkatetzaren maiatzaren 16ko 2024-1078 zenbakiko Dekretuaren bidez, 2024-2027 aldirako indarrean dagoen Dirulaguntzen Plan Estrategikoa (PE) onartu zen. Bertan, udalerriko abesbatza taldeentzako dirulaguntza lerro bat aurreikusten da, 3346 programa.

En atención a lo dispuesto en el artículo 8.1 de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones, mediante Decreto de Alcaldía número 2024-1078, de 16 de mayo, se aprueba el vigente Plan Estratégico de Subvenciones (PES) para el periodo 2024-2027, en el que se contempla una línea de subvención destinada a grupos corales del municipio, programa 3346.

7.200 euroko kreditua dago indarrean dagoen 21.3346.481.01 aurrekontu-partidan, aipatutako dirulaguntza lerroaren 2024ko deialdiari erantzuteko.

Existe crédito por importe de 7.200 euros en la partida presupuestaria vigente 21.3346.481.01 para atender la convocatoria, ejercicio 2024, de la referida línea de subvención.

Espedientean jasota dago deialdia egin duen arloko teknikariak emandako txostena, 2024ko uztailaren 17koa.

Consta en el expediente informe emitido por la técnica del área convocante, de fecha 17 de julio de 2024.

Galdakaoko Udalak dirulaguntzak ematea arautzen duen Ordenantza Orokorraren 20. artikuluak xedatzen duenez, norgehiagokako

El artículo 20 de la *Ordenanza General Reguladora de la concesión de subvenciones por el Ayuntamiento de Galdakao* dispone que

Baliozkotze Kod.: APDDDJ44SZ3C5N6SMY6XDMYAH
Egiaztapena: https://galdakao.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 1. orrialdea, guztira 3

erregimenean emateko prozedura ofizioz hasten da Alkatetzak onartutako deialdi bidez, eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean eta Udalbatzaren iragarki-oholean edo egoitza elektronikoan argitaratzen da.

el procedimiento de concesión en régimen de concurrencia competitiva se inicia de oficio mediante convocatoria aprobada por la Alcaldía, y publicada en el Boletín Oficial de Bizkaia y en el tablón de edictos o sede electrónica de la Corporación.

2024(e)ko uztailaren 18(a)(e)ko PR/2024/2126 ebazpen proposamena ikusita, 2024(e)ko uztailaren 18(a)(e)an aldeko fiskalizazioa jaso zuena./ Vista la propuesta de resolución PR/2024/2126 de 18 de julio de 2024 fiscalizada favorablemente con fecha de 18 de julio de 2024.

## EBAZPENA/ RESOLUCIÓN

**Lehenengoa.-** Galdakaoko udalerriko abesbatza-taldeei 2024an dirulaguntzak emateko deialdia onartzea, dirulaguntzen lerro horretako deialdiaren oinarri arautzaile espezifikoen arabera (2023ko irailaren 28ko BAO, 187. zk.).

**Primero.-** Aprobar la Convocatoria para la concesión de subvenciones destinadas a los grupos corales del municipio de Galdakao durante el año 2024 de acuerdo a la Bases Reguladoras Específicas de la convocatoria de dicha línea de subvención (BOB núm. 187, de 28 de septiembre de 2023).

**Bigarrena.-** Udalerriko abesbatza-taldeei 2024ko ekitaldian diruz laguntzeko zenbatekoa, guztira, 7.200 eurokoa da, eta 21.3346.481.01 aurrekontu-partidari egozten zaio.

**Segundo.-** La cuantía total destinada a subvencionar a los grupos corales del municipio para el ejercicio 2024 asciende a un máximo de 7.200 euros que se imputa a la partida 21.3346.481.01 del presupuesto municipal vigente.

**Hirugarrena.-** 2024ko ekitaldirako 7.200 euroko konpromisoa proposatzea, kontzeptuagatik eta adierazitako partidaren kargura.

**Tercero.-** Proponer el compromiso de 7.200 euros para el ejercicio 2024, por el concepto y con cargo a la partida indicada.

**Laugarrena.-** Deialdiaren laburpena argitaratzea Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, Dirulaguntzen Datu-base Nazionalaren bidez.

**Cuarto.-** Publicar un extracto de la convocatoria en el Boletín Oficial de Bizkaia por conducto de la Base de Datos Nacional de Subvenciones.

Era berean, deialdiaren testu osoa argitaratzea udalaren egoitza elektronikoan.

Asimismo, publicar en la sede electrónica municipal el texto íntegro de la convocatoria.

**Bosgarrena.-** Dirulaguntzen Oinarri Nazionalari bidaltzea, deialdiari buruzko informazioaz gain, emandako emakidari edo emakidei buruzko informazioa, aplikatu beharreko araudian ezarritakoaren arabera.

**Quinto.-** Remitir a la Base Nacional de Subvenciones, además de la información sobre la convocatoria, información sobre la concesión o concesiones recaídas en los términos establecidos en la normativa aplicable.

Baliozkotze Kod.: APDDDJ44SZ3C5N6SMY6XDMYAH
Egiaztapena: https://galdakao.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 2. orrialdea, guztira 3

**Seigarrena.-** Diruz lagundutako jarduerak zabaltzeko betebeharrak alde batera utzi gabe, erakunde onuradunek jasotako dirulaguntzen berri eman beharko dute, gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19 /2013 Legean eta Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legean ezarritako moduan eta baldintzetan

**Sexto.-**Sin perjuicio de las obligaciones respecto a la difusión de las actividades subvencionadas, las entidades beneficiarias deberán dar publicidad de las subvenciones percibidas en los términos y condiciones establecidos en la Ley 19/2013, de 9 de diciembre, de transparencia, acceso a la información pública y buen gobierno y en la Ley 2/2016, de 7 de abril, de Instituciones Locales de Euskadi.

**ELEKTRONIKOKI SINATUTAKO DOKUMENTUA/ DOCUMENTO FIRMADO ELECTRÓNICAMENTE**

Baliozkotze Kod.: APDDDJ44SZ3C5N6SMY6XDMYAH
Egiaztapena: https://galdakao.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 3. orrialdea, guztira 3